

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK

LORENZO ZUBILLAGA GOICOECHEA
MARIA CRISTINA VAL SARDÓN
NEREA YEREGUI BALDA
AITZIBER OTAMENDI ECHARRI

BERTARATU EZ DIRENAK

IGOR OTERMIN EGUIA
IÑAKI ELIZALDE ZUBILLAGA
ANDER PRADOS OTAMENDI

IDAZKARIA

Joanes Aleman Ollo

Betelun, udaletxeko bilkura gelan, 2025eko irailaren 30ean arratsaldeko zazpi eta erdiak direnean, Lorenzo Zubillaga Goicoechearen jaunaren lehendakaritzapean eta egintzaren fede ematen duen Joanes Aleman Ollo idazkariak lagundurik ondoan aipaturiko zinegotziak elkartu dira.

Udal bilkura dagokion deialdiaren ondoren egin da, erreglamentuan ageri den aurrerapenarekin eta deialdia beraren eta gai zerrendaren ale bat udaletxeko iragarki oholean iragarri ondotik.

Ohiko izaera duen bilkura irekirik eta lehendakaritzak publikoa dela esanik; Idazkariak bilkura hasteko behar den zinegotzi kopurua bertaratu dela egiaztaturik; gai zerrendan diren ondoko puntuak aztertzeari ekin zaio.

1. 2025-08-26KO ETA 2025-09-10EKO UDAL BILKURAKO AKTAREN ONARPENA

Deialdiarekin batera banatu diren 2025-08-26ko eta 2025-09-10eko bilkuretako akten inguruan udalbatzako kideren batek zerbait esateko duen galdetu du lehendakariak.

Zinegotzi bakar batek ere ez du deus adierazi.

Lehendakariak aktak bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu ditu.

2. ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENAK:

1. Basalan Arrospide SL

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko abuztuaren 25ean, 55/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Beteluko 1. Poligonoko 183. Lursailetik eta 2. Poligonoko 375. Lursailetik egurra ateratzeko mendi-pistak eta auzo-bideak erabiltzeko baimena ematea Basalan Arrospide SLri.

2.- Ordainketa agindua

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko irailaren 2an, 56/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: 2025eko abuztuaren 26an egindako osoko bilkuran onartu ziren fakturak ordaintzea.

3. Jose Eldelberto Gallego Santa

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko irailaren 10ean, 57/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Jose Eldelbertori Gallego Santari ofizioz baja emateko espedientea irekitzea.

4. Yassine Jidane

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko irailaren 10ean, 51/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Yassine Jidane, Lambarki Soufiane, Mohammed Chafra eta Mohamed El Hamse Ait Ibourk jaunei erroldan ofizioz baja emateko espedientea irekitzea.

5. Oihana Goikoetxea

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko irailaren 11n, 59/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Lehenengoz okupatzeko eskatutako lizentzia ematea Beteluko 2. Poligonoko 12. Lursailean dagoen Apeztegiberri etxeko etxebizitzarendako.

6. Lourdes Satrustegui

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko irailaren 11n, 59/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Lourdes Satrustegui Latieguik Beteluko 1. Poligonoko 28. Lursailean dagoen Elostia etxeko portxearen teilatua eraberritzea dela eta eskatzaileari egungo egoeraren argazkiak eta obraren deskribapen zehatzagoa eskatu zaizkio.

7. Iñaki Aguirrezabal

Beteluko Udaleko alkateak, Lorenzo Zubillaga Goicoecheak, 2025eko irailaren 11n, 61/2025 Ebazpena onartu zuen. Gaia: Iñaki Aguirrezabal Bazterricari hirigintza lizentzia ematea Beteluko 2. Poligonoko 53. Lursailaren itxitura egiteko.

3. JASOTAKO IDATZIAK

1. – Estela Veliz eta Ufredo Mora

Estela Velizek eta Ufredo Morak Diegaby Hostal SL-ren izenean, taberna 2025eko urriaren 13tik 16ra (biak barne) bitartean ixteko eskaera egin dute.

Hau dena ikusita, udalbatzak aho batez zera onartu du:

Eskatutako itxiera egunak onartzea.

2.- Ana Belén Arraras

Ana Belen Arraras Zabaleta Iratzarri Elkartean hiru urtez kontratatuta egon dela eta (2019ko irailaren 1etik 2020eko abuztuaren 31a arte eta 2021eko irailaren 1etik 2025eko irailaren 1era), antzinatasuna kobratzen hasi daitekeela adierazi dute Ana Belen Arraras Zabaleta eta Garazi Elozegi Sagarribaik, Iratzarri Elkarteko zuzendari eta idazkariak, aurkeztutako idatzian.

Iratzarri Elkartea izan da Beteluko Udalaren Sorgintxo haur eskola kudeatu duena aipatutako denboraldian.

Beteluko Udalak Iratzarri Elkartearekin sinatutako kontratuetan agertzen denez, kontratuaren prezioaren barnean, Udalaren azken ordainketaren parte dira langileen beste gastu batzuk, hala nola langileen antzinatasuna, etab.

Hau ikusirik udalbatzak honakoa erabaki du:

Ana Belen Arraras Zabaletaren antzinatasunaren ondorio diren gastuak Beteluko Udalak bere gain hartzea.

Alkateak akordioa bozkatzera ekarri eta udalbatzak aho batez onartu du.

3.- Jose María Huarte Estanga

Jose Maria Huarte Estangaren ibilgailuaren baja dela eta 2025. urteari dagokion trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren itzulketa proportzionala eskatu du.

3711-CMM matrikula duen ibilgailua 2025eko irailaren 11n eman zen bajan

Hau ikusirik honakoa onartu da:

Urteko azken hiruhilekoari dagokion zati proportzionala itzultzea, hau da 34,41 euro.

Hau dena Nafarroako Toki Ogasuneko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 163.3. artikuluari jarraiki.

4. FAKTUREN ONESPENA

	KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Vodafone	F. Ekaineko faktura	210,39 €
Mikel Oyarbide sl	F. F963	1.574,08 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A14/2025	90 €
Arregi floristas	F.25000219	100 €

Wikai	F. 36	112,10 €
Venus Campos	F.DFA47	2.833,41 €
Lyreco	F. 7050387280	122,51 €
Iberdrola	F. Urberoa	7,21 €
Iberdrola	F. Udaleko pisua	10,15 €
Bartolo	F. 10	21.175 €
Casa Arregi	F. Ramon Garmendia lore sorta	60 €
Idm medical	F. 1604	131,07 €
Miguel Ramon Olano	F. 54/2025	283,14 €
Agedi	F.350011347	96,81 €
Rodriguez Ezpeleta	F.2025/36	927,50 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa	276,29 €
Iberdrola	F. argiztapen publikoa	639,75 €
Urzubi	F. A946	91,57 €
Aislamientos Lizartza SLL	F. TB-2025-F40	8.045,91 €
Goiener	F. eskolako argia	409,39 €
Goiener	F. udaletxeko argia	274,39 €
Serlimpia	F. 250488	300,08 €
Bandomovil	F. 0941	114,95 €
Animsa	F. SCA 421	1.264,62 €
Urzubi	F. A 977	1.393,92 €
Lorenzo Otamendi Artola	F. 1118	114,10 €
Miel Ramon Olano	F. 62/2025	94,38 €
Miel Ramon Olano	F. 60/2025	4.634,30 €
Miel Ramon Olano	F. 63/2025	94,38 €
Miel Ramon Olano	F. 61/2025	1.053,91 €
Miel Ramon Olano	F. 59/2025	2.620,07 €
Baiza Motor	F. 825/2441	8,74 €
Codisna	F. 25.540	199,65 €
Rodriguez Ezpeleta	F. 2025/37	593,06 €
Miguel Ezcurdia Arostegui	F. 217	272,10 €
Comercial Fervis	F. 2773	45,74 €
Ofico	F. 253730	94,32 €
Vodafone	F. CI0925132428	212 €
Rosa Estanga Arrizubieta	F. materiala	24,15 €
Venus Campos Walsh	F.DFA 48	2.833,41 €
Orona	F.eskolako igogailua	413,03 €
Angelines Carrillo Ruiz	F. A16/2025	90 €
SORGINTXO HAUR ESKOLAKO LEHEN ZIKLOA		
Angelines Carrillo Ruiz	F. A 15	108,01 €
Zhongguo-Market	F. materiala Kutxatik ordainduta	31,55 €

Rosa Estanga	F. Uztaila Sorgintxo	44,68 €
Seikide	F. 1665	324,28 €
Seikide	F.1880	358,77 €
	DENETARA:	54.808,87€

Lehendakariak fakturak bozkatzera ekarri eta udalbatzan diren kide guztiek aho batez onartu egin dituzte.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 81.2 artikuluari jarraiki, Lehendakariak, premiazkotasunez, gai zerrendan ondorengo puntuaren inguruko akordioa sartzeko eskatu du: “Beteluko Udal Plan Orokorraren behin behineko onarpena”.

Premiazkotasunaren zioak ondorengoak dira: Nafarroako Gobernuaren errekerimenduari erantzunez Udal Plan Orokorraren berridazketa aurkeztu du Chyurm Arquitectos SLk. Komeni da Udal Plan Orokorra lehenbailehen onartzea eta Nafarroako Gobernura bidaltzea horrela, azken honek, planaren behin betiko onarpena eman dezan

Lehendakariak gai ordenean sartzeko akordioa berrestera ekarri eta udalbatzan diren kide guztien aldeko bozkarekin onartu da. Aldi berean, aldeko bozka hori udalbatzako legezko udalkideen gehiengo osoa da.

5. BETELUKO UDAL PLAN OROKORRAREN BEHIN BEHINEKO ONARPENA

Beteluko Udalbatzak 2021eko ekainaren 21ean Udal Plan Orokorra onetsi zuen hasiera batez.

Hilabetez jendaurrean egon zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean (2023ko urtarrilaren 19an, 16. zenbakian), Udaletxeko iragarki taulan eta Nafarroako Foru Komunitatean editatzen diren egunkarietan iragarri ondoren.

Jendaurreko epe hori 2023ko martxoaren 20ra arte luzatu zen 2023ko martxoaren 9ko 49. Zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean iragarri ondotik.

Beteluko Udalbatzak 2024ko azaroaren 19an egindako bilkuran Beteluko Udal Plan Orokorra behin behinekoz onetsi zuen. Espediente osoa Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentura helarazi zuen Beteluko Udalak.

Nafarroako Gobernuko Hirigintza Atalak errekerimendua egin zuen 2025eko otsailaren 26ko datarekin. Bertan azaldutakoaren arabera Udal Plana errekerimenduan egindako ohartarazpenei kasu eginez aldatu ondoren berriz ere Beteluko udalak behin behinekoz onartu eta Lurralde Kohesiorako Departamentura bidali behar zuen.

Ikusita errekerimenduan ezarritakoa kontuan izanda Udal Plan Orokorra aldatuta helarazi duela Chocarro y Urmeneta SLk, udalbatzak honakoa ERABAKI DU:

Behin betiko onarpena baino lehen Nafarroako Gobernuko Lurral Kohesiorako Departamentuak egindako txostenean egindako errekerimendua kontuan izanik aldatutako Udal Plan Orokorra behin behineko onestea eta bere behin betiko onarpenerako, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentura bidaltzea.

Akordia, Batzarrera etorritako guztiek, aho batez, onartu dute, legeak eskatzen duen gehiengoa izanik.

6. GALDERAK ETA ESKAERAK

Ez da ez galdera ez eta eskaerarik egin.

Arratsaldeko zortzi eta erdiak direnean, bilkura amaitu eta altxatu egin da, idazkaria naizen honek ziurtatzen dudana.